

[b]
BARREN
ELGOIBARKO ASTEKARIA

564. zkia.
XIII. urtea
2006ko martxoaren 17a

Jose Maria Regil

**«Gaur egungo pertikekin
ilargiraino egingo nuke salto»**

4. EDIZIOA

IMH SARIAK

Ikasle ohi aipagarria
2005-2006eko ikaslea
Fabrikazio Arloko ikaslea,
2005-2006 ikasturtea



■ Helburua

Makina Erremintaren sektoreari egiten dioten ekarpenagatik esker ona adierazi ikasketa garaian edo ondorengo lanbidearen garapenean nabarmendu diren IMHko Heziketa Zikloetako ikasleei.

■ Ikasle ohi aipagarria nola proposatu

Proposaiezaguzu aurtengo ikasle ohi aipagarria. Horretarako bi modu dituzu:

- Telefonoz: 943 748 265 (Maria Ventura).
- Internetez, www.imh.es guneko formularioa osatuz.

Baldintzak eta informazio gehiago www.imh.es orrian.

■ Sariak banatzeko ekitaldia

Data: 2006ko martxoaren 31

Ordua: 12.30

Tokia: IMHko Areto Nagusia


Hautagaia proposatzeko sartu gure webean
www.imh.es

Babesleak



Kolaboratzaileak

ALKORTA BROCKHAUS · AUTOMATION ORIA S. L. · BARREDO · BERDIN S. L. · BIAL MEKANIZAZIOAK S. L. · BIELE S. A. · CRISTALUX LIMPIEZAS · DELTECO S. A. · ELAY S. A. · FAGOR ARRASATE, KOOP. E · GAINDU S. A. · GLUAL HIDRAULICA S. A. · GRUMAL S. L. · IBARMIA · IMS CONSULTORES · INDUSTRIAS ALGA S. A. · INDUSTRIAS KOKATU S. L. · INDUSTRIAS LAIP · INDUSTRIAS METALA S. L. · INTZA S. A. · KONDIA S. L. · MAZA · MECANIZADOS GURRUTXAGA · PIXEL S. L. · SAMMIC S. L. · SIERRAS SABI S. A. · T.M NORMA S. A. · TALLERES AIBE S. A. · TEKNIKER · ZEHATZ S. L.



Makina Erremintaren Institutua

Azkue Auzoa, 1 · E-20870 Elgoibar, Gipuzkoa · Tfnoa.: 34 943 748 265 - 34 943 744 132 · Faxe: 34 943 744 153 · imh@imh.es · www.imh.es



MIKEL KORNEJO

Aupa Ibane!
Eskerrak naturak ez duen ez etika eta ez moralik!

Eritasun batzuen aurkako azken terapek beste eritasunen sortzaileak erabiltzen dituzte.

Garbikeriak (ez garbitasunak) gure globulo txuriak asperduraz erotu eta alergiak sortzera eramaten ditu.

Afrikar emagalduen artean sistema immunologikoaren eraldaketa bat eman eta HIESa garaitzeaz gain beste askok ere garai dezaten lor dezakete. Euren hurrengo belaunaldiak ere dohai horrekin jaioko dira. Eskerrak berriz ere naturaren amoraltasunari!

Goroto ditut animalien dokumentalak, oreinkumeari Bambi izena emanaz, natura gerturatu nahi dizkiguten horiek. Atsegin dut Bambi (egia esan oraindik ez dut pelikula ikusi ere egin, gogoia dudan arren), baina Bambik, animalien bitartez giza istorio moral bat kontatzen digu. Animaliak ere amoralak baitira, eskerrak. Pentsa eltxoek goroto bagintuzte...!

Beharbada gizakia gehiago dela pentsa dezakegu, baina ez dago bere inguruena eta beste izakiak hainbeste erasotu dituenik giza arraza baino, moralaren mamuak gure espeziekideen aurka eramaten gaituen bitartean.

Ze, gu gabe ere Lurra aurrera jarraituko du, dudarik ez egin, Ibane!

ZOZOAK BELEARI...



IBAN URIZAR

Mikele kuttuna, ederra bota didazuna!!

Goroto dituzula animalien dokumentalak? Eta zerk eragiten dizu hainbeste goroto sentiaraztea, animaliak pertsonak balira bezala tratatzeak?

Beharbada nahiago dituzu zientifikoagoak diren dokumental horiek; *Jara y Sedal* edo *El hombre y la tierra* bezalakoak. Dena dela, nik nahiago ditut Bambi izenez bataiatzen dituzten horietakoak.

Zeuk diozun bezala; natura gerturatu dutenak. Kamara aurrean pertsona askok baino hobeto betetzen dute beren papera animaliek.

Badago hau erakusten duen filma bat: *El viaje del emperador*. Ez dira NODOak erakusten zituen caudilloaren bidai psicotropikoak, pingüino talde baten gorabeherak kontatzen dituen dokumental eder bat baizik. Oscarretan saritua suertatu da gainera, edo zoritxarrez.

Denok oparitu dizkiegu TVE2ko dokumentalei gure zurrungarik afinatuenak. Zihur hau irakurtzen lo gelditzen den horrek ere ikusi duela noizbait animalien dokumental bat. Gure siestaren parte izateagatik sikira, merezi du abejarukoaren inguruan analisi sokratikoak egitea.

PD: Orwellek Napoleon jarri zion baxetxeko zerri nagusiari, eta honek bai erakusten zuela gizakiaren izatea. Dokumental ederra, txo!

«Goroto ditut animalien dokumentalak»

«Nahiago al dituzu dokumental zientifikoagoak?»

IBAN



GIZAKIAK EZ DAKI GAINONTZEKO ANIMALIEK BAINO GEHIAGO, GUTXIAGO DAKI. EUREK JAKIN BEHAR DUTENA DAKITE, GUK EZ



Fernando Pessoa

Etxebizitza, eskubide urratua

Egungo gizartearen ardatza ekonomia den garai hauetan, non politika neolibera- lek merkatu librean bideratzen duten, gazte- ok, gizarteko beste sektore batzuekin bate- ra, ondorio latzak jasaten ditugu, tartean, etxebizitza bat edukitzeko ezintasuna.

Etxebizitzaren eskubidea, giza eskubi- deen kartak berak onartzen duen oinarri- ko eskubide unibertsal urratua da, eta no- la urratua gainera!! Gure eskubidea, bat- zuten negozio bihurtu delarik, hain zuzen, eraikuntza enpresa, banketxe, aurrezki kut- xa zein inbiliarrien negozio. Espainiar estatuko sistema ekonomikoaren oinarri nagusienetarikoa bihurtu da etxebizitzaren negozioa. Guretzat, etxebizitza propio bat eskuratzea eta, honen ondorioz, gure bizi- za proiektuak aurrera eramatea ezinezkoa den bitartean, aipatuak, espekulazioaren bitartez aberasten ari dira. Non dago aurrezki kutxek helburutzat duten ekintza so- zial hori? Izan ere, uste dugunez, hauek, herriari laguntzeko sortuak izan ziren bere garaian, eta orain, hipoteka, eta interes or- dainduenezin aurrean aurkitzen gara. Konstruktoreei dagokienez ere, zenbaterai- nokoa da etxebizitza baten kostu erreala eta zenbaterainokoa irabaziak? Etxebizit- zen prezio izugarriekin eta alokairua ere dagoen bezela egonik, gazteontzat, ezi- nezkoa da gurasoen etxetik joatea, eta El- goibarko gazteak ez gara salbuespen bat. Honi, lan mundua ezin beltzago egoteak ez dio batere laguntzen, prekaritate ego- era larri batetan gaude, behinbehineko kontratuekin eta, sarri, baldintza eskaseta- n, beraz, arazoa bikoiztu egiten da. Gainera, babes ofizialeko etxeekin badirudi arazoa

konpondutzat ematen dela, baina, haue- tako etxetxo bat lortzeko ere errenta mini- mo bat izan behar da, eta honek, popu- lazioaren sektore polit bat aukera honeta- tik kanpo uzten du. Gainera, zauri bati tiri- ta bat jartzea bezela da, arazo handiago bati erantzun indibidualak ematea, baina denak berdin jarraituz.

Bitartean, Euskal Herrian 235.000 et- xe huts baino gehiago daude eta Elgoiba- rren, 600 baino gehiago. Uste dugu, etxe- bizitza hutsak egotea, gizarte honetan onartu ezin dezakegun luxu bat dela, eta horren aurrean hauek erabiltzeko neurriak hartu beharko lirakeela. Baina ez, hor ja- rraitzen dugu, eraiki eta eraiki, inguruneak asfaltatu eta asfaltatu, amalurrean gehiegi- kerriak eginez, eta bitartean Errosario kalea ia hutsik!! Gauzak horrela egonik, okupa- zioa zilegi ikusten dugu gazteok pairatzen dugun egoera honen irtenbide gisa.

Ez dugu bizitza guztian bankuaren menpe egon nahi, ahal izatea ere ez da guztion aukera! Honen aurrean, beharrez- koa ikusten dugu alokairuaren erabilerako, eta etxebizitzaren eraikuntzarako beste mota batetako erregulazioa eta arau zorrotza- goen ezarketa, arazoak errotik konpondu- ko dituen. Gurea den eskubide bat alda- rikatu dugu, etxebizitza bat izatearena. Benetan larria iruditzen zaigu hain "aurre- rakioa" den Europa honetan, Euskal He- rrian gertatzen dena. Europar Batasuneko beste herrialdeekin alderatuz, gazteok gu- rasoenetik askatzeko dauzkagun aukerak ahuntzaren gaurdiko eztula bezalakoak dira. Noiz arte horrela?

ELGOIBARKO GAZTE ASANBLADA

IX. Pilota Eguna

Ikastolaren izenean eskerrak eman nahi dizkiegu larubatean, martxoak 11an, ospatutako IX. Pilota Eguna antolatzen la- gundu duen eta babeslea izan den Eus- kadiko Kutxa-ri, baita Elgoibarko Pilota Es- kolako arduradunei ere. Bestalde, eskerrik beroenak parte hartu duten neska-mutilei. Datorren urtean ere laguntzeko prest egon- go zaretelakoan, agur bero bat.

PILOTA EGUNA BATZORDEA

Aparkamentu arazoak

Atzo papertxo bat topatu nuen autoko kristalean. Papertxoak zihoenez, Udalak "trafiko eta estazionamendu arazoan kon- ponbidean aurrera egin nahi du", eta on- dorioz, hurrengoan zigorra ipini beharko didate bertan aparkatzeagatik. Izan ere, orain dela gutxi Kiroldegiko kalean apar- katzea debekatu dute, bertan bizi garenoi arazo handi bat sortuz. Batipat, Udalak "estazionamendu arazo"ei ematen ari zaion konponbideak harritu nau: aparka- zea debekatu. Herri guztiak daki Elgoiba- rren aparkamentu arazo handia dagoela, eta Udalak irtenbideak topatu beharrean debekaren politika aplikatu du oraingo- an ere. Azkenean autoa Sigmako aparka- leku eraldioan laga beharko dugu denok, han lekuri baldin badago behintzat. Bu- katzeko, Udalari noizean behin heritarron iritzia entzuteko eskatu nahi nioke.

PD: Nola egingo dituzte orain gure he- rriko kirolari sutsuek kaletik kiroldegira dau- den 200 metroak?

AITOR ARAKISTAIN - 15391234W



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zkia**.



Argitaratzailea:



Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
943 74 41 12 • Faxa: 943 74 37 04
Publizitatea: 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea **PUBLIZITATEA** Eider Iriondo **MAKETATZALEA** Jaione Unanue **KOLABORATZALEAK** Antton Alberdi, Uxue Alberdi, Oihana Apellaniz, Mikel Comejo, Juanito Gorostiza, Amaia Garrobategi, Sare Gurrutxaga, Imanol Larrañaga, Ainhoa Landinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Ane Odria, Maialen Olazabal, Iban Urizar, Kokoe KE, Uruzuno, Unai Villena, Alaiz Vives **ESABA ZAHARRA** Gotzon Garatzen liburirik **INFORMATZEA** Geniu **TIRADA** 4.450 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1038/92 **ISSN** 1139-1855



Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.



? GALDERA

• Zergatik kentzen ditu Udalak horretako kartelak? Herritar batek esan digunez, egun batetik bestera desagertzen dira horretan jartzen dituzten kartelak. Hirigintza Sailera deitu dugu eta Migel Anjel Mujikak esan digunez, "Udalak herriko kaleak eta hormak garbi egotea nahi du. Langile batzuk dauzka horretarako. Gure ustez, propaganda egiteko beste bide batzuk daude, komunikabideak, esate baterako. Kaleko hormak zikintzea ez da bide egokia."

👍 TXALOAK

• Herritar batek, joan zen asteburuan izan zen Auresku eta Soinu Zahar Txapelketako antolatzaile eta parte hartzaileak txalotu nahi ditu: "Zorionak Elgoibarko dantzari, Elgoibarko herritarrei hain une atseginak eskaintzearen. Zapatuan eta domekan Herriko Antzokian egindako lanagatik jaso zenituzten txaloak merezitakoak izan ziren, baina beste hau ere merezi duzue. Txistulariek ere merezi dituzte txaloak eta esker ona, jo ta ke aritu baitziren bi egunetan. Eta batez ere, txaloak Herriko Antzokira hurbildu zireten guztioi, txalo eta animoak behar beharrezkoak baitira horrelako ekintzetan. Eskerrik asko".

• Herritar batek Ramon Mujika Udal Kirol Patronatuko zuzendaria txalotu nahi du: "Bidea pauso txikiak emanez hasten da, eta eskertzekoa da Kirol Patronatuak hartu duen erabakia. Momentuz ordubete gehiago irekiko dute igerilekua, eta ez dago gaizki. Kirolzaleok espero dugu bide beretik jarraitu eta gauzak hobetzen joatea".



Atal honetarako kezak, txaloak edo galderak helarazteko:

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
943 74 41 12

Hil da gero... Amaia Montero



Kokoe 051

Gau-eskolatik euskaltegietara 50 urtean

1976-80: Aldaketa

Urte hauetan izango dira aldaketarik handienak helduen euskalduntze-alfabetatzean. Euskal Herri mailan, 77-78an euskalduntze-alfabetatze mugimenduko 60 arduradun bildu ziren Altsasun, eta, ondorioz, 79-80 inguruan AEK (Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundea) sortu zen.

Elgoibarri erreparatzen badiogu, berriaz, 76tik 82ra bitartean (Ikastola berria ireki zenetik, AEK martxan jarri zen arte) gau-eskolak aldaketa nabarmenak izan zituen. Ikus ditzagun garrantzitsuenak:

- 76an, Elgoibarko Izarraren gau-eskola parrokiako lokaletatik Ikastola berrira pasa zen, eta eskolak emateko baldintzak asko hobetu ziren.

- Ikasle kopuruari dagokionez, gorakada handia izan zen. 76an, adibidez, 200 ikaslelik gora ari ziren euskara ikasten. Ondorioz, hasieran Ikastolako gelekin moldatu arren, leku berriak topatu behar izan zituzten (Merkatu Plazako lokalak, gaur egun Kultur Etxea dagoen etxea eta loritoko lokalak).

- 79an, Elgoibarko Izarra ez zen euskara erakustez arduratzen zen elkarte bakarra. San Roken, Artetxen, Santa Klaran eta Sigman ere euskarako klaseak ematen hasi ziren Herri-Alde Auzo Elkartekoak. Auzo-elkarte honek batzorde ezberdinak izaten zituen, eta hauetako bat euskara irakasteaz arduratzen zen.

- 79-80an, Udaleko langileak hasiko dira gau-eskolan euskara ikasten. Itziar Agirregomezkorta zen irakaslea.

- Ordelegiari dagokionez ere, aldaketak izan ziren. Ordura arte gau-eskolak (izenak ondo dion bezala) iluntzetan edo gauetan bakarrik ematen ziren, jendea lanetik irten ondoren. 76tik aurrera, berriaz, bazkal ostean ere hasiko dira eskolak ematen. Eta 80an, goizeko taldeak jarriko dira martxan estreina-koz.



AMAIA LARRAÑAGA

AEK EUSKALTEGIKO
IRAKASLEA

Amaia Larrañaga euskararen harrak eraginda, orain dela 24 urte hasi zen klaseak ematen AEK euskaltegian. Orduko kezka izango zelakoan hasi zen, baina mundu hau zenbat eta gehiago ezagutu, orduan eta lotura handiagoa eskatzen duela konturatu, eta bertan dihardu.

• Zergatik ematen zuen jendeak izena hasierako urteetan? Eta orain?

Gizartearen ohiturak eta beharrak zeharo aldatu dira, eta horrek unean uneko helburuei erantzutea eskatzen digu. Gaur egun euskaltegira etortzen direnek behar jakinak dituzte (lana, integrazioa, familia...) eta garai haietan, batez ere, integrazioa zen behar nagusia. Zoritxarrez, integartzeko euskara ez zen, eta ez da, behar-beharrezkoa, eta jendeak errazago lagatzen zion ikasteari. Gaurkoak, ostera, ikasten hastea kostatu arren, konstanteagoak dira, eta gehienek lortzen dute euren helburua. Lan baldintzak ere asko aldatu dira. Ordukoa ia-ia militantzia zen, gaur egun, euskarak militantzia behar badu ere, profesio-

nalak gara, oraindik zer hobetua badugun arren.

• Nola ikusten duzu euskararen etorkizuna?

Sekula baino lan handiagoa egingen ari gara, eta inoiz baino diru gehiago inbertitzen da, baina ezin ditugu gabeziak ahaztu, esaterako: noizko mediku euskaldunak? noizko Berriak Diariok beste irakurle?...Gainera, euskaldun izan eta erabili ezean, alferrik da euskaldunak garela esatea.

• Eta euskaltegien etorkizuna?

Alde batetik, irakasleok helburu zehatzak eta ia-ia personalizatuak emateko gaitzen dihardugu, hori da-eta eskatzen zaiguna, administrazioak jartzen dizkigun baldintzak betetzekotan; baina, bestetik, ahalegin hori aintzat hartu behar da lan-baldintzetan.

Malape taberna
Orain astegunetan

San Frantzisko, 60
tel. 943 74 19 43

ML KAVOSA
Errosario, 30
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

IDAZMAKINEN SALMENTA
ETA KONPONKETA
MULTIKOPISTAK
FOTOKOPIADORAK
PLANOEN BIRREGILEAK
ERLOJU INDUSTRIALAK
MARRAZKETA MATERIALA
INFORMATIKA
FAX

[AKORDATZEN NAIZ]



MIREN VALLEJO

1923an jaioa

«Eskola txikitik haundira»

Saturren eskolatik erten genduanian... ene, ama! Haura zan al-daketia! Ematen zaban Euskaditik Andaluziara juan giñala. Haura zan mugia pasau genduan! Gure Satur maistra! Akabo gure euskeria.

Erderia neretzat hizkuntza berrixa izan zan, eskerrak etxian euskeraz egiten genduala eta egitten dogula. Ikasi genduan bai, erderia, hala ere; gogoratzen naiz nola esan zidan "señorita" batek: "Sabe, Miren, que no habla nada bien el castellano". Ez nion orduan erantzunik eman. Hemen gabilta gure hizkuntzia zabaldu nahixan, eta hala ere, sarri askotan

gure ez-paiñetan erderia-kin

gabilta.

Eskola haundixan zauden maistrak "señorita" ziran. Onak ziran, ikasi genduan euren ikasi genduan, gaur dakidana han ikasitakua da. 13 urtekin laga egin genduan eskolia, gerria etorri zalako. Baiña urte politak pasau nittuan "señoritekin". Lagunak ere orduak ditut, lagun onak.

Jolasak ere egiten genduzen, nola ez; gimnasia egiten genduan Plaza Txikian; gogoratzen naiz hainbeste urte pasau eta gero, "en txafos" ibiltzen giñan. Askok ez dozue jakingo zer dan! Kaniketan ere ibiltzen giñan, eta baiita futbolian ere. Orduan ere gustatzen zitzatan futbola. Beti defentsan. Mutilla eta gaztia banituz, biharbada, Realeko fitxia eukiko naban.



[GURE BERBAK]

Erakusle bikoitza:
hori etxiori (2)

Aurreko astian aurkeztu gendun egittura hau, eta gaurkuan adibide batzuk ekarriko ditugu hona.

Aurretik, hala ere, graduen kontua aitatu nahi dot.

Jakina da erakusliak 3 gradu daukela, hurbiltasunaren arabera: lehenengo gradua (*hau*), bigarrena (*hori*) eta hirugarrena (*haura* eta, hitzari lotuta bada, *-a*).

Ba, erakusle bikoitzeko egittura hauetan, normalian gradu berekuak izaten dira erakusliak kasu bakoitzian: hau etxiau, hori etxiori, haura etxia. Ezin dira *hau etxiori eta *hori etxiau bezelakorik egin.

- Bueno hau errekiu, hola ta hola zatoren hortikan.
- Honek umiok beti jolaserako prest.
- Garbi esateko, ikusi be nakan hori alderdixori, ta edarra, ikusteko.
- Ikusten dok hori deposituori? Hori dagok husten oiñ.
- Gero, horrek denporok pasauta, Maalako kapellauan monagillo izan nitzan, hamen ere bastante denpora.
- Gero Frantziara juan zan haura mutilla.
- Bixak hil ziran harek andra-gisonak.


Jesus Mari Makazaga



JOSE pintarak
(Txema)

Mota guztietako pintura eta enpapelatuak. Zoluak, moketak, sintasola, kortexoa, etab. jartzen dugu.


San Bartolome, 28-1 ezk • Tel: 943 74 12 55 • Mobila: 629 44 23 14



URKIDI
AHOLKULARITZA

Antonio Urkidi
Josefina Fernandez

Tel.: 943 74 18 91
Faxa: 943 53 01 49
Kalamua, 12



JOSE MARIA REGIL PERTIKA-JAUZILARI OHIA

«Gaur egungo pertika modernoekin ilargiraino igo eta bertan geratuko nintzateke»

Abiadura, bizkarreko muskulu indartsuak eta gimnasta baten trebetasun eta malgutasuna behar dira pertika-jauzilaria izateko. Jose Maria Regilek (79 urte) hauek eta gehiago zituen sasoiko mutil gaztea zenean. Kinta berekoa eta atletismo zale porrokatua den Juanito Gorostizak honela berba egin digu "Jose Mari 3 metrora zegoen listoia gainditzeko ikusi nuen neure begiekin. Urte batzuk beranduago, Sergey Budka ukrainiarrek, historiako pertika-jauzilari onenak 6,10 metroak (momentuko munduko errekorra) nola gainditzeko zuten ikusteko pribilegioa izan nuen Donostian. Ezin da sinestu zenbat aldatu diren gauzak salto batetik bestera". Protagonistak berak azaldu digu duela 50 urte nola aritzen ziren pertika-jauzian.



► Pertika-jauziko Gipuzkoako txapeldunorde izatera iritsi zinen, ezta?

Bai halaxe da. Ni baino hobea zegoen bat: Gustavo Masse donostiarra, gogorra zen! Proba bat baino gehiagotan irabazi nion arren, txapelketa ofizialetan sekula ere ez. Huraxe izan zen nere kontrariorik txarrera.

► Taldeka bai, Gipuzkoako Txapeldun atera zenuten.

Bai Taldekako Gipuzkoako Txapelketa irabazi genuen 1951. urte inguruan-edo. Atletismoak entzute handia zeukan garai hartan eta Elgoibarrek talde indartsua zuen lehen mailan.

► Atleta onak zeuden Elgoibarren.

Bai, betidanik. Gure aurretik ere, gerra aurrean, atleta oso onak zeuden. Arratsalde bakar batean laupabost Espainiako txapeldun titulu irabazi zituzten elgoibartarrek Atotxako futbol zelaian: Juanito Mugerza antxintxika 5 kilometroan, Azpitarte "Kakatza" jabalina jaurtiketan, Inazio Eizagirre "Upei" pisu jaurtiketan eta Juanito Ansola "Azkue" disko jaurtiketan txapeldun. Marka itzela herri txiki batentzat!

► Zure garaiko gazteen artean pertika-jauzia ez zen oso ezaguna izango. Nolatan hasi zinen kirol honetan?

Soldadutzara joan nintzenean ikasi naban. Iruñako General Mola estadio famatuan ibiltzen ginen atletismoan. Luzera jauzian hobekien moldatu nintzen eta altuera jauzian ere hala moduz. Hura ikusirik, kapitainak; "Regil, tienes que probar la pertiga" eta halaxe egin nuen. Salto handiegia egin ez nuen arren, bi metro eta erdi-edo, 1. postuan amaitu nuen. Soldaduzka amaitu eta Elgoibarrera itzuli nintzenean, atletismo taldekoei pertika-jauzia egiten nuela aipatu eta eurekin hasi nintzen. Harrezkero kirola geratu gabe egin dut. Mendian asko ibilitakoa naiz. Penintsulako mendirik altuenak igo ditut: Mulhacen, Monte Perdido, e.a.



Luzera jauzian 6 metro saltatu zituen J.M. Regilek. Eskumako argazkian ezkerretik hasita lehena da. Bere ondoan: Ramon Ezenarro, J. Etura eta Sebastian Etxabe. Portadako argazkia 1951. urtean Donostian ateratakoa da, 3 metroko altuera gainditzen ageri da.

► **Zein zen zure errekorra?**

Hiru metro eta 10 zentimetro. Garai hartan asko zen.

► **Eta garaiko munduko errekorra?**

Sillon izeneko frantzes bat, beltza, hura zen onena. Lau metro saltatzen zituen. Donostiara ere etorri izan zen eta jendea erruz inguratzen zen hura zuzenean ikusteko.

► **Ba al zeneukan entrenatzailerik?**

Gaur egun entrenatzaile moduan ulertzen denik, ez. Casto Iraegi direktibako kideak ematen zizkidan aholku batzuk. Eibartarra izatez, baina urte mordoan bizi izan zen Elgoibaren. Lerunen entrenatzen genuen. Neuk egin nuen zuloa atxurrarekin eta ondarrez estali gero. Jendea barra-barra etortzen zen gu ikustera, baita Eibartik ere, han futbol zelairik ez-eta. Egunero ez, baina sarritan entrenatzen nuen.

► **Ekarri dizkiguzun argazki zaharrei begira erortzerakoan ez zenutela koltxoirik oharu naiz.**

Ezta urrik ere! Lurrean, rasian, ondarra bakarrik egoten zen golpea arintzeko. Atera kontuak!

► **Makina bat ipurdiko hartuko zenituzten...**

Hiru metrotako altueratik ondar apur baten gainean jaustea izugarri arriskutsua izan zitekeen.

► **Lur hartzerakoan minik ez hartzeko teknikaren bat erabiltzen al zenuten?**

Teknika? gaizki jauziz gero, aguanta-tu egin behar, hori zen gure teknika baka-

rra. Orain daude teknikak! Huts eginez gero bigunera jausten dira oraingoak. Pertika asko aldatu da. Gure garaian gehiago ere salto egingo genukeela uste dot, baina hortaz behera jausteko beldurra bel-durraz ez ziren marka hobeak egiten.

**«Eskaladan
Espainiako
txapeldunorde
atera nuen**

► **Nolakoak ziren pertikak?**

Banbuzko kainaberekin eginak izaten ziren; arinak, baina doblatzeko zailak. Eta doblatzen baziren asunto txarra, apurtu egin zen seinalea. Behin apurtu zitzaidan bat Donostian. Egunkarian honela jarri zuen hurrengo egunean: "Regil a pasado apuros pero no le paso nada de gravedad". Postura txarrean jauzi eta kolpea baino txarragoa izan zen amasarik hartu ezinda geratu nintzela lurrean. Hazurrik ez apurtzea nahikoa milagro izan zen. Masaje batzuk hartu... eta kitto!

► **Zer luzera izaten zuen pertikak?**

3 metro eta erdi. Donostiara saltoa egitera joaten ginenean trenean erama-

ten nuen pertika, furgoian sartuta. Merkantziak eramateko erabiltzen zen bagoian, alegia. Bakoitzak bere pertikarekin salto egiten zuen. Neri erregalatu egiten zizkidaten. Pertikak egiteko erabiltzen ziren banbu kainaberak erreka bazterretan aurki zitezkeen, hementxe ere hazten ziren. Neri bakararra apurtu zitzaidan, baina beste asko ikusi nituen apurtzen.

► **Beira-zuntz eta karbonoz eginak dira gaur egungo pertika modernoak. Noraino iritsiko zinazteke zure garaian horrelako bat zure eskuetara iritsiz gero?**

Oraingo pertikekin! Iletargiraino igoko nintzateke eta bajatu ez; bertan geratu!

► **Beste kirol praktikatzen al zenuten?**

Altuera jauzian 1,60 metro zen nire markarik onena eta luzera jauzian sei metro pasa egiten nituen. Horrek denak soldadutzan ikasi nituen eta lehen postuak ere atera nituen proba batzuetan. Gure konpainia eskiatzaile eta eskalatzailena zen. Eskaladan ere Espainiako txapeldunorde atera nuen. Oraindik ere etxean gordeta daukat eman zidaten zilarrezko domina. Jakan jokatu zen txapelketa eta 13 segunduko aldeagatik ez nuen txapel-dun atera. Gero generala pasa zen eskua ematera eta dirua ere irabazi genuen, 5.000 pezeta. Orduan asko zen. Eskiatzen ere ikasi nuen, baina ez txapelketetara joateko mailaraino. Soldadutza Espainia eta Frantziako mugen artean, Piriniotan egin nuen: Zubiri, Orreaga, Luzaide... paraje horietan.

[PROTAGONISTA]



Uxue **Alberdi**

Uxue Alberdi elgoibartarrak, beste sari bat jaso berri du, oraingoan, bertsolaritza alorrean saritu dute: Beasaingo Neguko Bertso Paper lehia-keta irabazi du. Normalean sari bakarra ematen dute, baina dirudienez, maila altua erakutsi dute partehartzaileek, eta epaimahaiak saria bi lagun artean banatzea erabaki du. Hortaz, Uxue Alberdi eta Iñaki Gurutxaga oriotarra izan dira lehiaketako irabazleak. Uxuek gizon bat eta puzteko panpin baten arteko maitasun istorioa kontatu du 10 bertsotan. Sari banaketa gaur izango da Beasainen, eta irabazleen bertsoak Asier Gozategik abestuko ditu.

[NOTIZIA]

Ertzaintzak zainduta egongo da Arnaldo Otegi epailearengana joan arte

Arnaldo Otegi Batasunako bozemaile elgoibartarrak Ertzaintza izango du etxepean, sendatu eta epailearen aurrera joateko moduan egon arte. Astelehenean joan behar zuen Otegik Auzitegi Nazionalera, baina bronkitisa eta sukara zituenez, Grande Marlaska epaileak Arnaldo Otegiaren agerraldia atzeratu zuen apirilaren 10era arte. 12 ordutik behin pasatuko da auzi-medikua Arnaldoren etxetik. Hainbat herritarrek beren babeserakutsi diote aste osoan zehar Arnaldori, kontzentrazio eta manifestazioak eginez.

Hilaren 9ko greba

Martxoaren 9ko greba eta mobilizazio egunerako deialdia egiteagatik deitu du deklaratzera epaileak Otegi. Oraingoan



baldintzarik gabe espetxeratzea eskatuko du fiskalak. Elgoibarren bi orduko geldieroa egin zen, bata eguerdian eta bestea iluntzean. Antolatzaileen esanetan, "herriko komertzio gehienak itxi ziren, eta manifestazioetan 265 lagun inguruk hartu zuen parte. Industri alorrean ez zuen grebak eragin handirik izan gure herrian".

[ZENBAKIA]

2005. urtean 68 ume bataiatu dira Elgoibarren. Aurreko batean esaten genuen iaz 100 ume jaio zirela gure herrian, eta gaurko zenbakia kontuan hartzen badugu, argi dago, denak ez dituztela bataiatu. Gizartea aldatzen doa, lehen haur denak bataiatzen ziren, gaur egun, gero eta gutxiago.

asteko [ARGAZKIA]



Azken 30 urteotan bi ufal bizi ostean, Deba ibaiarekin erlazio berezia dugu elgoibartarrok. Hori dela eta urak ohi baino gehiago hazten diren bakoitzean ibaira begira jartzen gara. Halaxe aurkitu genuen herritar bat baino joan zen zapatuan: ibaira begira, kezkatuta eta korrontearen indarraz harrিতuta. Aurreko egunetako euri jasen eraginez asko hazi ziren urak eta Andikano inguruan bere bidetik atera ere bai (argazkian). Ibaira ematen duten San Frantzisko eta Errosario kaleetako etxebizitzak ere urak hartu behar

225.965 euroko dirulaguntza emango dio Udalak Elgoibarko Izarrari 2006an



Herenegun, martxoaren 15ean, sinatu zuten Udalak eta Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak 2006. urterako hitzarmena. Aurtengo jardunerako, 225.965 euroko dirulaguntza emango dio Udalak Elgoibarko Izarrari; Euskara Sailetik 122.967 euro eta Gazte Sailetik 102.998 euro. Proiektu batzuk bere osotasunean finantzatzen ditu Udalak eta beste batzuentzat, aurrekontu osoaren zati bat ematen du.

Aurrekontuaren erdia

Elgoibarko Izarrak hainbat klausula eta baldintza onartu ditu dirulaguntza hau jaso ahal izateko, eta hitzartutako programa aurtengo partean betetzeko konpromisoa hartu du. Udalak emandako dirulaguntza Elkarteak 2006rako daukan aurrekontu osoaren erdia baino zertxobait gutxiago da. Elkartetik esan digutenez, Udalarri eskerak eman nahi dizkiete, dirulaguntza hori ezinbestekoa baita proiektuak aurrera eramateko.

Dirulaguntza garrantzitsuenak

• Haur eta Gaztetxoaren Aisialdiak	102.998 euro
• BARREN astekariak	51.775 euro
• Gurean Bai Merkataritza Hitzarmenak	31.400 euro
• Euskara Errefortzuak	17.850 euro
• Kuadrilategi egitasmoak	11.825 euro

[MOTZ-MOTZIAN]

Danobat enpresa saritu dute Bienalean

Iruñea eta Burgoseko beste bi enprekin batera, Elgoibarko Danobat enpresak diseinu alorreko saria jaso zuen Erreminta Makinaren azokan. FG 600 proiektuak eskaintzen duen ergonomia, segurtasuna eta materialen arrankean nabarmendu zuten Elgoibarko enpresa. Danobat Taldeko Soraluze enpresak ere aipamen berezia jaso zuen 2006ko Bienalean.



1966an jaiotako enfaria

1966. urtean jaio eta Ikastolan ibili ziren bi gelen arteko enfaria izango da apirilaren 1ean. Bertara joateko hitzordua iluntzeko 20:00etan jarri dute, Iriondo tabeman. Interesatuak 20 euro sartu beharko dituzte Euskadiko Kutxako 3035 0009 0090076097 kontu korrante zenbakian.

Gida Komertziala

BARRENek 2006ko Gida Komertziala kaleratu du. Bertan, gure herriko denda, enpresa, jatetxe eta beste ha maika erakundetako telefonoak aurki daitezke. Norbaitek ez badu gida hau etxean jaso, BARRENen edo Elgoibarko Izarran eskuratu dezake.



Giro bikaina XI. Barrikotean

XI. Barrikotea izan zen joan zen zapa-tuan, hilaren 11n, Kimetz Elkarteak. Gaveko 21:00etan hasita, sagardotegi bilakatu zen Kimetz. Jende ugari gerturatu zen, 18 euroren trukean sagardotegiko menua dastatzera, eta nola ez, sagardotegi denboraldian bameratuta gaudenez, txotx egitera. Afalostea apur bat berotzeko Beñat Ugartetxe eta Joseba Artzaren bertso saioa izan zen. Kimetz elkarteak bildu zirenek, trikiti eta bertso doinu artean ospatu zuten aurtengo Barrikotea.



Inkesta

Mendaroko Ospitaleko medikuekin kontsulta edukitzeko, batez beste, 52 egun itxaron behar direla jakinarazi du bertako zuzendariak.

Gustura al zaude Mendaroko Ospitaleko zerbitzuarekin?

ROSARIO PEREZ
Klinika laguntzailea
41 urte



“Mendaroko Ospitala txikia da eta ezin dio Debabarrena guztiko jendeari zerbitzu ona eskaini. Nire amak sei hilabete daramatza operatzeko zain.”

BLAS GARCIA
Aurrejubilatua
63 urte



“Bi hilabete daramatza jua-neteetatik operatzeko zain, baina normala da. Gizartea gero eta zaharragoa da eta gaixo asko gaude. Nire ustez zerbitzu ona eskaintzen du.”

CONCEPCION PASCUAL
Etxekoandrea
65 urte



“Gaizki funtzionatzen du, gaixotasun larriren batekin, zain zaudela hiltzeko arriskua dago. Nire lagun bati 5 hilabetera eman diote ginekologoa-goa-rengana joateko txanda.”

M^a CARMEN SALMON
Etxekoandrea
65 urte



“Niri ez zait tokatu zain egon beharra, baina nire senarra bularreko minez eraman genuen behin Mendarora, zain egoteaz aspertu eta probak egin gabe bueltatu ginen.”

[BAI ala EZ?]

Arriskutsua iruditzen al zaizu Madalako errotonda?

BAI %56

“Bai, semaforoak estropeatuta egon ziren denboraldian hobeto funtzionatzen zuela iruditzen zait. Ez zegoen hainbeste auto ilara eta jendea gusturago zegoela uste dut.”

“Arriskutsua baino, desegokia da! Semaforo saltsa edarra jarri dute Madalan! hor errotonda bat behar zen trafikoa arintzeko eta ez jarri duten traba hori!”

Datorren asterako...

Sinisten al duzu tenporetan?

BARREN (espazioa) ERANTZUNA

7505 zenbakira

SMS kostua: 0'90 ¤ + B.E.Z.-a.



Hilean behin afari bat zozketatuko dugu **Gabi jatetxean**. Zenbat eta erantzun gehiago, aukera gehiago!

IMHko Ingeniaritza Eskolako Ate Irekien Eguna bihar, hilak 18



Goizeko 11:30ean hasita, IMHko Ingeniaritza Eskolako Ate Irekien Eguna izango da bihar, larunbata. IMHko arduradunek, egungo ikasle eta ikasle ohiekin batera, ikasturte berrirako programa azalduko dute, eta ondoren, eskola bisitatuko da. IMHko Ingeniaritza Eskolaren ezaugarri nagusia ingeniariak txandakatze-sistemaren bidez prestatzen direla da. Sistema hau ohikoa da Europan, Frantzia esaterako. Ikasleak ikasketa-prozesuaren erdia eskolan egiten du, eta beste erdia enpresa batean, eskolak eta enpresak adostutako proiektuetan lanean.

Gaitasuna egiaztatzeko frogak

Eusko Jaurlaritzako Lanbide Heziketako Sailburuordetzak antolatuta, gaitasunak egiaztatzeko frogak egin dira IMHn. "Makineria eta linea eroanbideen instalazioa eta mantenimendu elektro mekanikoko Teknikaria" titulua kudeatzen du Jaurlaritzak, eta hori lortzeko egin dira frogak hauek.

Elgoibarko IMH ikastetxearekin batera, Usurbilgo BHI, Ameria Eskola eta Barakaldoko BHI ikastetxeek ere hartu dute parte frogak hauetan. Titulua lortu ahal izateko, beren gaitasun eta trebesiak erakutsi behar izan dituzte.

75 ume inguruk Lizarrak landatu zituzten Zuhaitz Egunean

Martxoaren 15ean, Zuhaitz Eguna izan zen gure herrian. Ikastetxe desberdinetako LH 6. mailako 75 ikasle inguru goizeko 9:15ean elkartu ziren hiltz zaharreen. Zuhaitzak landatzeko beharrezko tresnak hartu ondoren, Albitxuriko Industriegunera abiatu ziren. Industriegune inguruko malda batean ekin zioten lanari. Guztira 20 zuhaitz inguru landatu zituzten, esan zigutenez, lizarrak ziren landatutako zuhaitzak. Eguraldi ederra egin zuen, eta oso gustura aritu ziren lanean.



[IKAS KONTUAK]

Gurpil gainean San Lorentzora

Elgoibarko Herri Eskolako Guraso Taldeak antolatuta, San Lorentzora txirringa itzulia izango da martxoaren 26an. Goizeko 10:15ean izango da irteera Plaza Handian, eta 8 kilometroko ibilbidea egin ostean, helmuga Plaza Handian izango da. Parte hartzaile guztiek garaikurra jasoko dute eta ondoren, salda eta txorizoa banatuko da.

Kontzertu didaktikoa

Inazio Bereziartua Musika Eskolak antolatuta, kontzertu didaktikoa izan zen asteartean, hilaren 14an, Herriko Antzokian. "Escudero maixua" koro eta orkestraren eskutik, antzerki eta musika batzen dituen obrak gozatzeko aukera izan zuten etxeko txikienek.



[IRTEERAK]



Elgoibar Ikastolako ikasleak Mendaroko araztegia

Elgoibar Ikastolako DBH 1. mailako ikasleak, Mendaroko araztegia bisitatu zuten astelehenean. Klasean uraren gaia lantzen ari direnez, gure etxetara ura nondik iristen den ikusteko asmoz joan ziren, eta guk edan ahal izateko urari egiten dioten tratamendua ezagutu zuten.

► **DULCEANA GALVAN** **ARGENTINA [HEGO AMERIKA]**

«Etxean bezala sentitzen naiz Elgoik

DUELA HILABETE IRITSI ZEN DULCEANA GALVAN ELGOIBARRERA. ARGENTINARRA DA 55 URTEKO EMAKUME HAU, MAR DE PLATA HERRIKOA, HAIN ZUZEN ERE. ARGENTINAKO KOSTALDEAN BIZI DA, BAINA HONDARTZA EZ DUELA GUSTU-

KO AITORTU DIGU. SUKALDARIA DA BERA, ETA GURE HERRIKO EL GAUTXO TABERNAN ARI DA LANEAN. BERE LAGUNAK BISITAZERA ETORRI DA BAINA ARGENTINARA BUELTATZEKO ASMOA DAUKA.

► **Zer dela-eta erabaki zenuen Argentina uztea?**

El Gautxo tabernako jabeak (Andres eta Iris) nire lagunak dira, aspalditik ezagutzen dugu elkar eta beraiak bisitazera etorri naiz. Irisekin telefonoz hitz egiten nuen bakoitzean, hau zoragarria dela esaten zidan eta etorri egin behar nuela. Halaxe egin nuen, hegazkina hartu, eta etorri. Zorionez, Andresek lan handia dauka tabernan eta berari laguntzen diot. Ni ere sukaldaria naiz, Argentinan ere sukaldari lanak egiten nituen. Sukaldaritza ikasten ari nintzela ezagutu nuen Andres; bera oso gaztea zen orduan.

► **Bakarrik etorri al zara?**

Bai, nire familiako guztiak Argentinan laga ditut. 4 seme-alaba eta zazpi biloba. Asko gogoratzen naiz beraiekin. Telefonoz hitz egiten dut beraiekin, eta ondo dau dela jakiteak izugarri pozten nau.

«Ondo jaten da hemen, baina hango haragia zapoetsuagoa da»

► **Zein da zure asmoa, Argentinara itzultzea ala senideak hona ekartzea?**

Bertara bueltatzea. Bisitan etorri naizela argi daukat, ez dakidana da zenbat denbora geldituko naizzen hemen. Senideak urrutik edukitzeaz aspertzen naizenean bueltatu egingo naiz, edo Andres eta Iris nitaz aspertzen direnean. Nire biloba batek 17 urte ditu eta gustatuko litzaidake ni hemen nagoen bitartean, bera etortzea, ni bisitatu eta bide batez Euskal Herria ezagutzeko. Ikusi gabe ezin da imajinatu hau nolako ederra den.

► **Nola hartu zaituzte Elgoibarren?**

Oso ondo, ez nuen horrelakorik espero. Jendea oso jatorra da. Ez naute atzerritar bat bezala hartzen, etxean egongo banintz bezala sentitzen naiz Elgoibarren.



ren»

► Zer izan da gehien gustatu zaiuzuna?

Orokorrean dena gustatu zait: jendea, jatekoa, ingurunea... Oso ondo jaten da hemen, baina Argentinako haragiak zapore hobeak daukara iruditzen zait. Elgoibar Mar de Plataren oso antzekoa da, klima berdintsua daukagu han eta hemen, baina hura oso laua da, ez dago mendirik. Hemengo paisaia izugarri gustatzen zait, herritik mendia ikustea zoragarria da. Elgoibar herria ere oso polita iruditzen zait, kaleak pelikula batekoak ematen dute, oso erromantikoa da.

► Argentinatik atera zaren lehenengo aldia izan al da?

Ez. Lehenago ere Espainian egonda nengoen, Andaluzia aldean denbora dezente egin nuen. Euskal Herrian duela 20 urte izan nintzen. Oporretan etorri nintzen eta egun gutxi egin nituen hemen, Bilbo eta Donostia bakarrik ezagutu nituen. Hiri handiek ez daukate herri txikiekin zerikusirik. Hemen inguruko herriak bisitatu ditut eta oso politak irudituz zaizkit. Eguraldia hobetzen hasten denean kostaldea ezagutzeko asmoa daukat. Santanderreko Sardinero hondartzara joatea nahi dut Karmen egunean. Prozesio berezia egiten dute egun honetan itsasoan. Duela 20 urte ikusi nuen, eta txundituta gelditu nintzen. Berriz ikusteko gooa daukat.

► Zein egoeratan dago Argentina orain?

Orain hobeto dago, baina behar handia dago. Krisiaren ostean beti gauza bera gertatzen da: dirua dutenak, dirutsuago egiten dira, eta dirurik ez dutenei guztiz kontrakoa gertatzen zaie, txiroago-

ak bilakatzen dira. Krisiaren ostean erdiko klasea desagertu egin da. Aberatsak eta pobreak bakarrik daude, gero eta diferentzia handiagoak daude biztanleen artean. Askok dena saldu behar izan dute, etxerik gabe geratu dira. Guk, zorionez, autoa eta etxebizitza mantendu ditugu. Urte latzak pasatu ditugu. Krisi garaian Andaluziatik deitu zidaten lanera joateko, eta izugarri eskertu nien arren, Argentinan gelditu nintzen nire senideekin. Lehen geneukan presidenteak estatuko industria guztia hil zuen, fabrika asko itxi zituen eta dena kanpotik inportatzen hasi zen, askoz merkeago. Mar de Plata "jertsearen hiria" bezala ezagutzen da jantzi industria asko dagoelako. Turismoa ere garrantzitsua da, baina industriarik gabe oso zaila da aurrera egitea. Zorionez, poliki-poliki gauzak bere onera etortzen hasi dira.



- **Hiriburua:** Buenos Aires
- **Azalera:** 2.780.092 km²
- **Biztanleria:** 37 milioi.
- **Hizkuntza:** Gaztelera, quechua eta guarania.
- **Analfabetismoa:** %3,3
- **Erlijioa:** Katoliko Apostoliko



GAZTIA NAIZ

Gazte gaia...

MADE IN ITALY

GERO ETA OHIKOAGOA DA NORBERAREN HERRIA LAGA ETA IKASKETA-PRAKTIKAK KANPOAN EGITEA. GLOBALIZAZIOAREN KONTUAK HORRELAKOAK DIRA. KALEAN ATZERRIKO HIZKUNTZAK ENTZUN EDO KANPOTAR ITXURAKO GAZTEAK IKUSTEA EZ ZAIGU HORREN ARRAROA EGITEN. ADIBIDE GISA, GURE ARTEAN HILABETE EMAN DUTEN 18 URTEKO ITALIARRAK DITUGU: ERROMA ATZEAN LAGA ETA DARIO, SERGIO, LUCA, ROBERTO, CHRISTIAN, FRANCESCO ETA SIMONEK ESPERIENTZIA BERRI BATI HELDU DIOTE. EUREN IKASKETEKIN ZERIKUSIA DUTEN PRAKTIKAK EGITEAZ GAIN, ELGOIBAR, EIBAR ETA INGURUAK EZAGUTZEKO AUKERA PAREGABEA IZAN DUTE GAZTEEK. DOMEKAN AGUR ESAN ZIGUTEN, BAINA AURRETIK EUREN ESPERIENTZIAREN INGURUAN EGIN DIGUTE BERBA.

Otsailaren 20an ailegatu ziren gurea Italiako hiriburutik (Erromako probintziakoak dira guztiek) institutuan ikasten diharduten gazteak. Euretako hiruk diseinu grafikoarekin lotutako ikasketak egiten dihardute eta gainontzekoak, berri, mekanikarekin lotutakoak. Beste atzeritar asko egindakoari jarraituta, Eibarko Hezkuntza Esparruan hartu dute ostatu.

Diseinua ikasten dihardutenek, herri aldizkarietan aurkitu dute praktikak egiteko txokoa: Elgoibarko Debape enpresan eta Elgoibarko Izarra Kultur Elkartearen dihardute Luca eta Robertok. Dario, berri, ...eta kito! Eibarko astekarian.

Praktikak hasi aurretik, baina, gazte-erazko gutxienerako gauza batzuk ikasi dituzte Elgoibarren hartutako ikastaro trinkoan: "Gazte-erazko oinarriko gauza bat-

zuk erakutsi dizkigute, oso ondo egon zen ikastaroa". Hala ere, antzekotasunak nabariak izan arren, hizkuntza menperatzeko asko falta zaie oraindik eta euskara "molto difficile" dela diote.

Baina dena ez da izan ikasi eta lan egitea. Gure inguruak ikusi eta gozatze-ko aukera izan dute. Ikusitakoaren artean arrakastatsuenak Donostiako Kontxa eta Bilbaoko Guggenheim museoak izanik.

euren hitzetan



ROBERTO PETRUCCI

Lan munduan izan duen estraineko esperientzia izan du Roberto Petrucci Debape inprentan. Arte Ederretako ikaslea, italiar ukitua, ikusmoldea, eraman nahi du diseinu grafikoaren mundura. Lan egiteko modu eta teknika berriak ezagutu dituela Debapen aitortu digu, "Italian Photoshop programa denerako erabiltzen den bitartean, hemen, argazkiekin aritzeko bakarrik. QuarkXpress edo Freehand modukoak erabiltzera ohitu behar izan dut. Interesgarria eta aberasgarria izan da". Gure harridurarako euskaldunak italiarrak baino hizla-

riagoak garela ziurtatu digu, "hotz" fama ez dela merezitakoa, alegia. Ligatzerako orduan baina, neska euskaldunek italiarrek baino gutxiago berba egiten dutela ziurtatu digu, "neska italiarrak hizlari-egia dira". Bilbao eta Donostiako gau-giroa ezagutu ostean, taberna batean potetatzeko ohiturak txunditu du, baina osterantzean gazte- en dibertitzeko modua antzerakoa dela ondorioztatu du. Donostia "molto bella" dela esan digu, eta baita hilabetea motzegia egin zaiola ere, txoko eta bazter gehiago ezagutzeko.

BARREN

DISEINUA

Gainera, Bilbaon eta Donostian parranda egiteko tarterik izan zuten eta oso ondo pasatu ei zuten. Inauterietan ere Eibarran irten ziren gauzez eta "oso giro ona" zegoela azaldu digute. Jendea oso atsegina dela diote, "lehenengoz etorri gara Euskal Herrira, baina aukera izanez gero berriz bueltatzeko gogoia dugu". Turismoa egiteko orduan euren kontura ibili dira eta trenen puntualitateak harritu ditu gehien.

Etexera bueltatzean berriz ere klasera itzuliko dira, "ikasten jarraitzera eta hemen igarotako denboran galdu duguna berreskuratzen. Esperientzia oso polita izanda eta baliozkoa izango zaigula uste dugu". Guri buruzko irudi politarekin bueltatuko dira sorterrira.



LUCA DI TEODORO

Erromatik gertu dagoen Genzano Di Roma herrikoa da. Bi aste eman ditu Elgoibarko Izarran, Gurean Bai proiekturako zerbitzu katalogoaren diseinua egiten laguntzen. Gure artean igaro duen hilabeteetan gauza onak besterik ez ditu kontatzeko; eguraldia izan ezik. "Euri eta hotz gehiegi aurkitu dut hemen, Erroman klima mediterraneanaragoa dugu garai honetan". Eguraldiak ez die inguruak ezagutzea galerazi, ordea. "Donostia, Bilbao, Gasteiz eta Elgoibar inguruko herriak ezagutu ditugu. Donostia goizez eta arratsaldez ikusteko, baina gauzean Bilbaoko gau-giroa nahia go". Azkar hartu dio usaina honek

bertoko errealtateari. Espainiako neskek italiakoak baino ederragoak izatearen fama dutela han azaldu digu, "mediterraneo kostaldeko eta hegoaldeko neska beltzaranak idealizatuta dauzkagu".

Hemengo janaria ere gustatu zaio, nahiz eta patata frijitu gehiegi jan dituztelako kexati azaldu. Euskarazko berba batzuk ere ikasi ditu, "egunon, gero arte, agur, asteartea..." hasi zaigu, baina "molto difficile" dela gaineratuz. "Euskal Herriaren historiari buruzko gauza batzuk; Frankoren garaia...etab. ere azaldu dizkirate eta gehiago jakiteko gogoia piztu zait". Euskaldun jatorrekin topo egin du Lucak.

MARIA JESUS MITXELENA

GIPUZKOAKO TUMORE ERREGISTROAREN ARDURADUNA

«Gaur egun minbizia ez da gaixotasun hilgarria»



Maria Jesus Mitxelena Onkologia Institutuko medikua eta Gipuzkoako tumore erregistroaren arduraduna da. Honetaz gain, Foru Aldundiaren laguntzaz, bularreko minbiziari buruzko programaren baitan, hitzaldiak eskaintzen ditu Gipuzkoako herrietan. Elgoibarren ere izan zen, 50 urtetik gorako emakumeei zuzendutako hitzaldia eskaini zuen. Gaurkoan berarekin izandako elkarrizketa irakurtzeko aukera izango duzue.

► Zer da bularreko minbizia?

Euskal Herriko emakumeetan gehien agertzen den tumore txarra da. Urtean 1.100 kasu berri agertzen dira. Azken urteotan goraka doa, baina minbizia orokorrean ez da ohiko gaixotasun bat. Beste gaixotasunak askoz gehiago agertzen dira. 100.000 emakumetatik 70 edo 75 kasu aurkitzen dira. Estatu Batuetan baino gutxiago, eta hirugarren munduko estatuak baino kasu gehiago dauzkagu.

► Zeintzuk dira arrisku faktoreak?

Homonak hartzea, haurdunaldi berantiarak, adina; 50 urtetik gora arrisku gehiago dago, menopausia garaian, batez ere. Biztanleriaren zahartzeak ere eragin handia dauka, izan ere, bularreko minbizia 60 urtetik gorako emakumeetan aurkitzen da batez ere, eta gaur egun, Euskadin emakumeen bizi itxaropena 85 urtetan dago. Tabakoak eta alkoholak beste mota bateko minbizietan badute eraginik, baina bularrekoarekin zerkusia daukanik ez da demostratu oraindik. Loditasunak ere eragiten du, estrogeno gehiago baitaukate emakume lodiek. Jateko ohiturak, sedentarismoak, kutsadura eta faktore genetikoek ere eragiten dute. Antena eta telefono mugikorreirei buruz asko hitz egin da azkenaldian, baina momentuz ez da ezer demostratu.

► Nola aurkitu daiteke bularreko minbizia garaiz?

Metodo eraginkorrena mamografia da, honekin edozein sintoma txiki aurkitu daiteke. Medikuek egindako ikerketen bidez ere aurki daiteke, edo norberak bere buruari egindako azterketak ere metodo onak dira. Zenbat eta lehenago aurkitu, minbizia sendatzeko aukerak handiagoak dira.

«Etorkizunean minbizi kasuak gehitu egingo dira»

► Erraza al da norberak bere bularra aztertzea?

Bai. Ispilu aurrean etzan eta bularra ukitu behar da. Momentu onena hilekoa pasatu ondoren izaten da. Oso garrantzitsua da honelako azterketak egitea, beldurra galdu behar da, emakume askok ez dute honelakorik egiten, zerbait aurkitzeko

beldurra daukatelako, eta hori aldatu egin behar da. 50 urtetik aurrera mamografia egitea oso komenigarria da.

► Zein dira bularreko minbiziaren sintomak?

Bularreko minbiziak ez dauka sintomarik, ez da erraza aurkitzea, ez duelako inongo minik, edo beste sintomarik eragiten.

► Zein da bularreko minbiziari aurre egiteko tratamendua?

Minbizia zein egoeratan dagoen araberak, tratamendua desberdina izango da. Batzutan kirurgia bidez kentzen da tumorea, hala ere, eraginkorrenak kimio eta radioterapia dira.

► Etorkizunari begira, zer datorkigu minbiziaren alorrean?

Minbizi kasuak gehitu egingo dira, dudarik gabe, baina gaur egun, lehen baino askoz jende gehiagok egiten dio aurre minbiziari. Egoera asko aldatu da. Jende askok minbizia heriotzarekin lotzen du zuzenean, baina ez da horrela, minbizia gaur egun ez da gaixotasun hilgarria. Garaiz aurkituz gero, eta tratamenduarekin asmatzen bada, minbizia gainditu daiteke. Egia da, kasu batzutan heriotza dakarrela, baina bihotzekoak jota edo istripu baten ondorioz hil daitekeen bezalaxe. Ez dugu ahaztu behar hiltzeko jaiho garelak.

V. AURRESKU ETA SOINU ZAHAR TXAPELKETA

Bere herrian profeta izatea loitu zuten dantzari elgoibartarrek joan zen asteburuan Herriko Antzokian jokatu zen V. Aurresku eta Soinu Zahar Txapelketan. Guztira 68 dantzarik parte hartu zuten lau mailatan banatuta eta Dorleta Fernandezek eta Itziar Aldalurrek, bakoitzak bere mailan lortutako garaipenez gain, merituzko makina bat postu eskuratu zituzten dantzari elgoibartarrek, batez ere neskek. Zapatuan, 11 eta 15 urteko neska-mutilak lehiatu ziren eta epaimahaiaren iritziz, Dorleta Fernandez elgoibartarra izan zen "Ehun Dukat" eta "Uztai Txiki Zortzikoa" soinu zaharrak dantzatzen trebeena. Lezoko Nahikari Bizuete sailkatu zen bigarren postuan eta Maria Ferreiro elgoibartarra laugarren postuan. Irakaslearentzako saria Jon Lizarraldeki merezi izan zuen. Mutilen mailan Asier Badiola lezoarra izan zen irabazlea eta Josu Espilla herritarrik apagarriena. Domekan gaztetxoaren txanda



Ezkerretik hasita: Amaia Astigarraga, Maria Ferreiro eta Dorleta Fernandez.

izan zen. Mutilen artean Oiantzun aldera joan ziren lehen hiru postuak eta Mikel Zuñiga izan zen herritarrik onena. Nesken saioan dantzari elgoibartarrek izan ziren dominatzaile argiak. Lau herikidek parte hartu zuten, eta hauetatik hiru lehen lau postuetan sailkatu ziren: Itziar Aldalurrek jantzi zuen

txapela, Arantxa Ferreiro bigarren postuan sailkatu zen eta laugarren postuan Nerea Badiola, dantzari elgoibartarren saioa boro-bilduz. Hemen ere, Jon Lizarraldeki jaso zuen irakasle onenaren saria. Dantzarien harrobia indartsu datorrela frogatu zuten oholtza gainean.

"Mongolia zaldiz" Angel Cuerdoen ikus entzunezkoa



Angel Cuerdo bidaiari eta abenturazale tolosarrak "Mongolia zaldiz" ikus entzunezkoa eskainiko du martxoaren 23an, Kultur Etxeko Hitzaldi gelan. Udal Euskaltegiak antolatutako saioa 16:00etan hasiko da. Mongolia zeru urdinaren, estepa handien eta Gobi basamortuaren lurraldea da, ehunka urtetako historian pilatutako altxor natural, kultural eta espiritual bikainen bilgunea eta nomaden zibilizazioa-

ren sorlekua. Angel Cuerdo Genghis Khanen lurretan bizi izan zuen esperientzia kontatzen du proiektio honetan. Mongoliako errealitatea gertuagotik ezagutze-ko intentzioarekin bakarrik eta Mongoliako arropa tradizionala jantzita bidaiatu zuen. Estepan zaldiz eta basamortuan gameluz mugitu zen. Trasmongoliarrean 6.200 kilometro ere egin zituen trenez Moskutik Ulan Batorrer ezezagunera.

"El Florido Pensi" antzezlenerako sarrerak salgai

Tantaka Teatroa taldearen "El Florido Pensi" antzerki emanaldirako sarrerak salgai izango dira martxoaren 20tik aurrera. Apirilaren 7an, barixakuan, irit-siko da Herriko Antzokira antzerki entzutetsua. Sarrerak goizez Kultur Etxean, Kultura sailean izango dira salgai eta arratsaldez berriz (16:00-19:00), martitzenetik barixakura, Kultur Etxeko 2. en solairuan dagoen Gazte Gunean. Salneurria 8,50 eurotako izango da.

Sabel dantza ikastaroa

Udal Kirol Patronatuak Sabel Dantza ikastaroa antolatu du, apirilaren 28tik ekainaren 30era. Klaseak ostiraletan izango dira, 20:00etatik 22:00etara eta Jaione (Sebastopol taldekoa) izango da irakaslea. Izena ematea Olaizaga kiroldagiri. Ikastaroren prezioa: 30 euro/hileko (ez da dermigozkoa bazkidea izatea).

MIKEL GORRITI SNOWBOARD ZALEA

«la aldi berean ikasi nuen oinez eta eskiatzen»



Mikel Gorritik Ballantines Snowboard Cross Txapelketan bosgarren postua eskuratu zuela aipatu genizuen joan zen astean BARRENEko orriotan. Aste honetan hurbilagotik ezagutu nahi izan dugu 19 urteko gazte hau.

► **Baqueirako 5. postua orain arteko zure lorpenik handiena izan al da?**

Bai, dudarik gabe. Luz-eko estazioan 4. postu bat banuen half-pipe-ean, baina Baqueirako aurkariak izen eta maila gehiago zuten. Erlojupekoan lehen 16ren artean sartzea eta gero lehen kanporaketa gainditzea zen nire helburua, izan ere, lehen 10 sailkatuek datorren urtean parte hartzeko gonbidapena jasotzen dute. Lortu nuenean, presiorik gabe, gozatzerara ateratu nintzen.

► **Nola azaldu Snowboard Cross-a zer den sekula ikusi gabeko bati?**

Oztopoz eta jauziz betetako zirkuitu batean behera snowboard oholarekin egiten den lasterketa bizkor eta zoroa da. Launaka jaisten gara eta beste lehakideekin estropoz egiteko arriskua dagoenez, hasieratik aurrea hartzea komeni da. Zortea ere beharrezkoa da, akats txikiak erabakigarria izan baitaiteke.

► **Zein da zure espezialitatea?**

Snowboard Cross lasterketak gogoko izan arren, free style edo estilo librekoak gehiago gustatzen zaizkit: jauziak, baranda gaineko orekak, e.a. Normalean jendea batean edo bestean espezializatzen da; nik biak ditut gustuko. Baten abiadura eta bestearen asmatuntzarako askatasuna eta jauziak egiteak ematen duen gozamenak gogoko ditut.

► **Noiz hasi zinen eskiatzen?**

Bi urterekin. Etxean gordeta ditudan eskiei begiratu eta txunditu egiten naiz ta-

mainarekin. Oinez eta eskiatzen aldi berean ikasi nuen. Snow oholarekin, berriz, 13 urterekin hasiko nintzen, jauziak egiteko aukera gehiago eskaintzen duelako.

► **Nola entrenatzen duzu?**

Neure kasara. Elgoibartik 11 laguneko koadrila joaten gara ia asteburuetan Luz-eko estaziora. Nik lau urte jarraian daramazkit. Iazko udan, baina, Deux Alpesen, Frantzia izan nintzen teknika hobetzeko ikastaro batean parte hartzen.

► **Nola hasi zinen konpeteazioan?**

Iaz hasi nintzen lagunek animatuta. Ekaitz Isasi elgoibartarraren eskutik joan nintzen estraineko probara. Zoragarria da pista guztia zuretzat dela jakitea eta beldurrik gabe jaitea. Horrelako aukerarik gutxitan izaten da masifikatutako pistetan. Urtebetez buru-belarri probetan aritzea gustatuko litzaidake, baina zaila da, ez baitago zirkuitu sendorik, azpiegiturarik, alegia.

► **Zein da zure estazioa?**

Luz Ardiden. Beste estazio batzuk probatu ditudan arren, Baqueira eta Alpeetakoak izugarriak dira, Luzekoa neure etxea balitz moduan ezagutzen dut. Estazio txikia izanagatik pistaz kanpo aukera itzelak ditu eta snowparka asko hobetu dute.

► **Ametsetako estazio bat?**

Kaliforniako Mammoth Mountain. Piriniotako edozein estazioren hirukoitza da eta dena estilo librerako prestatuta, snowboard zaleen paradisu.

«Kaliforniako Mammoth Mountain snowboard zaleen paradisu da»

ZUBIAURRE AUZIA

Athleticek 5 milioi euro ordaindu beharko

Zubiaurre auziak aurrerapauso garrantzitsua eman zuen joan zen astean. Francesc Xavier Gonzalez epaileak aditzera eman zuen epaiak Athletic jo zuen erantzule subsidiario moduan, eta hortaz, 5 milioi euro ordaindu beharko dizkio Ibaiganeko klubak Realari, jokalaria mendarorak txuri-urdinekin zuen kontratua hausteagatik. Gauzak horrela, eta bizkaitarrek EAEko Auzitegi Nagusira bidalitako errekursoaren zain egon behar bada ere, Zubiaurrerena Athleticen historiako hirugarren fitxaketarik garestiena bihurtzeko bidean da. (Roberto Rios Betisetik fitxatzeko 12 milioi eta Santi Ezkerrorengatik 6 milioi ordaindu zituzten). Athleticen hasierako asmoa Zubiaurre traspasorik ordaindu gabe fitxatzea zen, jokalaria libre zegoelakoan. Epaiaren arabera "Zubiaurreren eta Athleticen artean akordio bat egon zen, promesa edo kontratu baterako konpromisoa bakarrik izanagatik ere". Falta zitzaion kontratu urtea bere kasa hausteagatik 32,9 milioi



euro eskatzen zizkion Realak jokalaria. "Etete-klausula hori gehiegizkoa da 22 urteko ezker hegaleko batengatik. Oso ona izan arren, izar handiegatik bakarrik ordaindu izan direla dirutza horiek agerikoa da" argudiatu zuen Gonzalez epaileak Realaren eskakizunak murrizteko.

Irujoren eta Olaizolaren oinordekoak Pilota Egunean



Guztira hamasei partida jokatu ziren joan zen zapatu goizean Ikastolako frontoian. 64 neska-mutilek parte hartu zuten Elgoibar Ikastolak antolatzen duen IX. Pilota Egunean. Irabazle eta txapeldunordeen izenik jartzeko tarte nahikorik ez dugun arren, pilota bera izan zen benetako irabazlea. Tanto ederrak, lehia, emozioa eta kiroltasuna nabarmendu ziren goiz osoan zehar. Irabazle zein finalistek oroi-garri bana jaso zuten.

Eskubaloian jokatzen hasteko deialdia

Elgoibarko SANLO E.K.T.-k jakinarazi duenez, apirilaren 18, 19, 20 eta 21ean, Aste Santuko oporrak aprobetxatuz, teknifikazio ikastaroa emango dute Olaizaga Kiroldegian. Hau dela-eta, eskubaloian jokatzeke gogoia izan eta 1993an jaiotako

mutilak eta 1994-1995 urteetan jaiotako neska-mutilek martxoaren 21ean, arratsaldeko 18:00etatik 19:00etara bitartean Olaizaga Kiroldegian azaltzea besterik ez dute egin behar. Behin bertan daudelarik, Iñaki Gilengatik galde egin beharko dute.

[EMAITZAK]

ESKUBALOIA

- Askartza 20 - Tecnifuelle 22 (Senior mut.)
- Leizaran 19 - Pneumax 29 (Jub. mut.)
- Urnobitza 24 - Urola 24 (Kad. mut.)
- ANTT Softlan 19 - Leizaran 22 (Sen. mut.)
- Lojantzi 22 - Oñati 17 (Sen. nesk.)
- Urola 11 - Cometel 24 (Sen. mut.)
- Umieta 13 - Pagoaga 13 (Kad. nesk.)
- Aterpe 21 - Mutrikuarrak 8 (Inf. nesk.)
- Oñati 10 - Olalsa 16 (Inf. nesk.)

ESKU PILOTA

Udaberi Txapelketa

- Zazpi Iturri 4 - lagunak (Ula./Iri.) 22 (2. nag.)
- lagunak (Atxo./Port.) 22 - Anaitasuna 11 (1. jub.)
- lagunak (Liz./Arriz.) 22 - Igeldo 10 (2. jub.)

[AGENDA]

ESKUBALOIA Kiroldegian

Zapatua, 18

- 17:30 Pneumax - Urola (Jub. mut.)
- 19:00 Tecnifuelle - Gure UPV (Senior. mut.)

Domekia, 19

- 11:00 Pagoaga - Zarautz (Kad. nesk.)
- 12:30 Olalsa - Aozaraza-Aloña (Inf. nesk.)

ESKU PILOTA Ikastolako frontoian

Udaberi Txapelketa

Barixakua, 17

- 22:15 lagunak - Beloki (2. nag.)

[ETXEBIZITZAK]

SALMENTA

▶ Erosario kalean etxebizitza salgai. 3 logela, sukalde, egongela, komuna, despentsa eta ganbara. **943 74 42 05**

▶ Pedro Muguruza kalean etxea alokatzen dut. **636 27 72 82 (18:00-21:00)**

▶ Etxea salgai erdialdean. Bizitzera sartzeko moduan. 71m²

943 74 3716/660 88 40 60 (Mancebo)

▶ Atikoa salgai Deban. Logela bat, sukalde jantzita, su bajua, igogailua. Bizitzera sartzeko moduan.

670 251 263

▶ Etxea salgai Errosario kalean. Guztiz berriua. 168.200 euro (28 milioi pezeta).

943 748448/636571111

▶ Etxea salgai Santa Ana kalean. 2 logela, sukalde berriua, komuna eta egongela. Prezio interesgarria. Garaje itxia aukeran.

686 22 44 38

▶ Arregitorren pisua salgai, garaje eta ganbarekin. 93,49m². Hall, egongela, bi komun, 3 logela eta sukalde. Guztiz berriua. **943 743915/678287847**

ALOKAIRUA

▶ Pisua osatzeko pertsona bat behar da. **610 45 85 52**

▶ Logela alokatzen da, komunarekin. **618 81 39 70**

▶ Pisua alokatzen da Conilen (Cadiz), Bateles hondartza ondoren. Jantzita eta aire egokituarekin. **680 44 26 68**

▶ Mutila behar dut pisua alokatzen. Sukalde eta logelarekin. San Antolin 6, 3.ezk. **645 70 77 00**

▶ Gizonezkoa etxea konpartitzeko prest Elgoibarren. **697 78 52 78**

▶ Pisua hartuko nuke alokairuan. **606 61 28 34**

[GARAJE eta LOKALAK]

▶ Urasandi kalean, Altzari almazaren azpian, garaje marraduna salgai. **943 74 24 56**

▶ Leku Ederren garaje itxia alokatzen da, 3. solairuan.

943742034/639353331

▶ Marradun garajea alokatzen da Ametsa parean.

615 78 78 57

▶ Garaje marraduna alokatzen da Pista Beltzean. Bi auto kabitzen dira. 60 euro. **699 81 25 66**

▶ Marradun garajea salgai Santa Ana 6an, Ametsa parean. **615 70 78 57**

▶ Mendaron garaje itxia alokatzen da. Garagartzan. 40m².

620 036 738

▶ Garaje itxia salgai Urasandin, Anayak poligonoan.

943 74 09 80/636 205 189

[AUTOAK]

▶ BMW 320D autoa salgai. 136 zaldi. SS-BD. Egoera oso onean. **639 65 40 27**

[BESTELAKOAK]

▶ York Shire arrazako txakurkumeak salgai. **647 81 62 56**

▶ Bi armairu handi salgai. Bi hila-bete. Txuriak. Haritz egurra. **645707700/943740226**

OHARRA

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak lau astetan agertuko dira. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta 12 ¤ eta alokairua 8 ¤. Autoak 8 ¤. Eta bestelakoak 5 ¤. Asteazken eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

LANA

ESKAERA

• Neska lanerako prest.

676 444 171

• Emakume gaztea tailarrean edo garbiketara lanak egiteko prest.

628 684 435

• Mutila peoi bezala lan egiteko prest.

943 53 15 53/

678 342 297

• 4 neska propaganda banatzeko prest.

610 95 34 34

• Emakume garbiketara lanetarako, nagusiak edo umeak zaintzeko prest.

606 64 22 84

• Mutila kamarero, tailerako laguntzaile edo garbiketarako prest.

660 92 75 66

• Emakume garbiketara lanetarako, nagusiak edo umeak zaintzeko prest.

660 92 75 66

• Emakume garbiketara lanetarako prest.

639 42 34 93

• Neska umeak edo adinekoak zaindu, garbiketara lanak egin edo sukaldari laguntzaile izateko prest.

600 28 27 93

• Neska gaztea lanerako prest: garbiketara, umeak edo nagusiak zaindu...

686 23 47 86

• Emakume pertsona nagusiak

zaindu edo interna moduan lan egiteko prest. Informea ditut eta bertakoa naiz. **620 674 034**

• Gizona pintore edo peoi lanak egiteko prest. **656 61 28 34**

ESKAINNTZA

• Begiraleak behar dira 7 eta 14 urte bitarteko haurrentzat, uztailean ingeles udalekuetarako.

943 71 20 55

• Ametsa tabernarako kamarera behar da. Ostiral, larunbat eta igandetarako. **943531035**

• Emakume euskalduna behar da etxeko lanak egin eta arratsalde umea zaintzeko. Ekainetik aurrera. **943 53 11 23/**

685 70 32 22

• Esperientziadun estetiziana behar da Elgoibarren. **(21:30etik aurrera) 653 701 647**

• Ikastolen Elkarteak aisialdiko begirale eta zuzendariak behar ditu. **944354340 (Amaia)**

• Asteburu eta jai egunetan gasolindegian lan egiteko pertsona behar da. **943 74 02 41**

• Asteburuetarako kamarero euskalduna behar da. **670 654 921**



• Debako enpresak ekipo elektrikoan mantentze lanetarako teknika behar du. **Erref. 162006002056**

• Debako enpresak CNC tomurako langilea behar du. **Erref. 162006002894**

• Gipuzkoako enpresak inkestazailek behar ditu. **Erref. 162006003243**

• Eibarko enpresak biltegirako langilea behar du. **Erref. 162006003191**

• Eibarko enpresak promotorea behar du. **Erref. 162006003175**

• Oñatiko enpresak soldadura irakaslea behar du. **Erref. 162006003269**

• Arrasateko enpresak kirol dendarako saltzailea behar du. **Erref. 162006003268**

• Bergarako enpresak elektromekanikoa behar du. **Erref. 162006000900**

• Oñatiko enpresak arotza behar du. **Erref. 162006000793**

Hautagai moduan sartzeko eskatu nahi baduzu **901222901** telefonora deitu edo 'langai'-k Elgoibarren dituen zentzura deitu: IMH (Nora Ramón) **943 74 41 32** telefonora.

ABISUAK

• Otsailaren 26an, Sigman, Grupo Eulogio Estartan, emakumezko erlojuak galdu nuen, Lotus markakoa. **943 74 20 51**

• Haizeak txamarra berdea eramantit balkoitik, San Roke kalean. **943 74 44 45**

• Karitasek jaioberrientzako jantziak eta kotxe kapota behar ditu. **943 74 15 09**

• Argazki kamera digitala galdu nuen otsailaren 25ean Plaza Handian. Argazkiak oso garrantzitsuak dira. Bidali mesedez mguede@yahoo.es helbidera. **625 70 90 17**

• Argazki kamera digitala galdu nuen inauterietako zapatuan. Pentax markakoa da. **628 58 45 35**

[ZORIONAK]



► Zorionak **Unax** bi urte beteko dituzulako. Familiakoan eta bereziki, anaia Xikerren partez. Muxu handi bat.



► Zorionak **Leire** 8 urte haundi bete dituzulako, etxekoan eta bereziki, Josuren partez.



► Zorionak **Jone** gaur, 11 urte egin dituzulako. Familiakoan eta bereziki, Nahia, Ainhoa eta Nagoreren partez.



► Zorionak **Daniel Legorbururi** martxoaren 21ean 8 urte beteko dituelako. Familiakoan eta bereziki, Nahiaren partez.



► Zorionak **Andoni** gaur 10 urte egin dituzulako. Familiakoan eta bereziki, Leireren partez.



► Zorionak **Iker** asteazkenean 2 urte bete zenituelako. Familiakoan eta bereziki, anaia Jonen partez.



► Zorionak gure etxeko poxpolinari, astelehenean 8 urte beteko dituelako. Familiakoan eta bereziki, ahizpa Iratiren partez.



► Zorionak **Julen** zure 10. urtebetetzean. Besarkada eta muxu handi bat familiako guztien partez.



► Zorionak **Carlos Gomez** hilaren 15ean 9 urte bete zenituelako. Gurasoen eta arrebaren partez.



► Zorionak **Ixaso** atzo, hilak 16, 15 urte bete zenituelako. Familiakoan partez.



► Igdandan 3 urte egingo ditu irribarre honen jabeak. **Maren** du izena, sorgintxoaren artekin politena. Bea eta Jokinen partez zorionak.



► Zorionak **Gorka eta Iker** atzo eta apirilaren 5ean, 8 eta 5 urte beteko dituzuelako. Familiako guztien partez!



IKASTAROAK

LANGABEENTZAKO ELEKTROMEKANIKAKO IKASTAROA ERRENTERIAN

"CNC makina-erremintan prestakuntza-programazioa". Martxoaren 27tik uztailearen 21era (8:00-14:00). Baldintzak: Langabeak. Iraupena: 485 ordu Epea: 2006-03-24 (Plazak mugatuak) Balioa: Dohain. Informaz: 943 344122 / 943 344119

BALIABIDE DIGITALEN INFOGRAFISTA IKASTAROA

Baldintzak: Langabetua. 2006-03-22tik 2006-11-22ra arte, Astelehenean ostiralera (15:00-20:00). Uztailean: (9:00-14:00). Abuztuan oporrak. Epea: Plazak bete arte. Informaz: 943 594190.

SOINU TEKNIKARI IKASTAROA LANGABEENTZAT ANDOAINEN

2006-03-22tik 2006-11-23ra arte. Astelehenean ostiralera (15:00-20:00). Uztailean 9:00-14:00. Plazak bete arte Informaz: 943 594190. %100en diruz lagundutakoa.

GERIATRIAKO LAGUNTZAILE IZATEKO IKASTAROA LANGABEENTZAT ERRENTERIAN

Martxoaren 27tik uztailearen 27ra (15:00-20:00). Iraupena: 420 ordu Epea: 2006-03-24 (Plazak mugatuak) Informaz: 943 344122 / 943 344119 Balioa: Dohain

LANA

TXISTULARI-IRAKASLE BAT DONOSTIAKO MUSIKA ETA DANTZAKO UDAL ESKOLARAKO

Oposizio-lehiaketa bidez. Baldintzak: Irakaskuntzaren ondorioetarako unibertsitateko diplomatu, ingeniari tekniko, arkitekto tekniko edo baliokidea. 2. hizkuntza-eskakizuna. Epea: martxoak 22. Infor: 943 481000

ADMINISTRARI BAT DONOSTIAKO MUSIKA ETA DANTZAKO UDAL ESKOLARAKO

Oposizio-lehiaketa bidez. Baldintzak: Goi-mailako batxilergoa, LH II edo baliokidea. 2. hizkuntza-eskakizuna Epea: 2006-03-22 Informazioa: 943 481000

KONTRABAXUKO IRAKASLE BAT DONOSTIAKO MUSIKA ETA DANTZAKO UDAL ESKOLARAKO

Oposizio-lehiaketa. Baldintzak: Irakaskuntzaren ondorioetarako unibertsitateko diplomadun, ingeniari tekniko, arkitekto tekniko edo baliokidea. 2. hizkuntza-eskakizuna Epea: martxoak 22. Infor: 943 481000

ELGOIBARKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA

Kultur Etxean. Bigarren solairuan.
e-posta: elg.gzerbitzua@terra.es
943 741 461

5 Asteartetik ostiralera 16:00-19:00



[OKINDEGIA]



19 igandea DOÑA MERCEDES



[FARMAZIAK]

GUARDIA 24 ORDUZ

- 17 Ibañez
- 18 Bidasolo
- 19 Bidasolo
- 20 Etxeberria (Santa Ana)
- 21 Fernandez
- 22 Yudego
- 23 Zabaleta
- 24 Etxeberria (Errosario)

* Beti dago guardiako farmazia Eibar/Ermua zonaldean.

KANPOKO FARMAZIAK

IBANEZ
Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38

FERNANDEZ
Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel: 943 75 61 42

ZABALETA
Kalebarren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84



ELGOIBAR - DONOSTIA

Astegunak:
7:10, 7:40, 8:10, 9:00, 10:40, 13:40,
14:00, 14:40, 15:00, 15:40, 16:00,
18:40, 19:05, 20:00, 20:40

Larunbatak:
7:10, 9:00, 10:40, 13:40, 14:00, 15:00,
18:40, 20:00

Igandek eta jaiegunak:
9:40, 10:30, 13:40, 18:40, 20:00,
20:40

Pesa: 902 10 12 10

DONOSTIA - ELGOIBAR

Astegunak:
6:15, 7:00, 8:15, 9:30, 12:00, 12:30,
13:30, 14:30, 15:00, 17:30, 18:30,
19:30, 20:45.

Larunbatak:
8:15, 12:00, 12:30, 15:00, 17:30,
19:30, 20:45

Igandek eta jaiegunak:
12:30, 17:30, 19:30, 20:45.

PESA: 902 10 12 10

ELGOIBAR - MENDAROKO OSPITALA

Astegunak:
6:15, 6:40, 6:45, 7:35, 8:15, 8:45...
ordu erdika. Azkena; 20:45.

Asteburuk eta jaiegunak:
7:15ean hasita, orduka. Azkena; 20:15.
EUSKOTREN: 943 74 04 42

MENDAROKO OSPITALA - ELGOIBAR

Astegunak:
6:55ean hasita, ordi erdiro. Azkena
21:55.

Asteburua eta jaiegunak:
7:55ean hasita, orduka. Azkena, 21:55.
EUSKOTREN: 943 74 04 42

LARUNBAT GAUEKO ZERBITZUAK

EUSKOTREN: 943 74 04 42

ELGOIBAR-DEBA
1:05, 2:35, 4:35, 6:05

DEBA-ELGOIBAR
12:10, 1:55, 3:40, 5:25

ELGOIBAR-EIBAR
12:25, 2:10, 3:55, 5:40

EIBAR-ELGOIBAR
1:00, 2:30, 4:30, 6:00

[17 BARIXAKUA]

22:00 BIDEO FORUM-A
Kultur Etxeko hitzaldi gelan
Antolatzailea: Haizea Emakume
Taldea

[18 ZAPATUA]

**11:30 IMHko INGENIARITZA
ESKOLAKO ATE IREKIEN EGUNA**
IMHn



S I N O P S I A K

«Volando voy»



Pintxoetan dukera zabala

13, Muguruzoa, 7 Tel: 943 74 16 76

[19 DOMEKIA]

12:30 UDAL MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA

Herriko Antzokian
Zuzendaria: Jose Antonio Osoro
Egitaraua: "Gitanillo de Triana" (J. Franco); "Nada y mucho" (J.C. de Arriaga); "Glenn Beats of the Jerico" (Jef Penders); "Banda Sucre" (G. Orsomando); "Las playas de rio" (Kees Vlak).

[23 EGUENA]

16:00 "ANGEL CUERDO GALARRAGA: MONGOLIA BIZIKLETAZ" IKUS-ENTZUNEZKOA

Kultur Etxeko hitzaldi gelan
Antolatzailea: Udal Euskaltegia eta Kutxa

18:30 IMHKO GOAZEN EUSKARA PLANAREN BALANTZEAREN AURKEZPENA

Udaletxean
Antolatzailea IMH



ZINE KARTELDEGIA

ELGOIBAR HERRIKO ANTZOKIAN

«Volando voy»

17, barixakua: 22:15
18, zapatua: 19:30-22:15
19, domekia: 19:30-22:15
20, astelehena: 21:30
«Kiriku eta basapiztiak»
19, domekia: 16:30
«Largo viaje» (Z.K.)
23, eguena: 21:30
«Orgullo y prejuicio»

EIBAR, UNZAGA

«Brockback Mountain»

17, barixakua: 19:30-22:15
18, zapatua: 17:00-19:30-22:15
19, domekia: 17:00-19:30-22:15
20, astelehena: 19:30-22:15
21, martitzena: 19:30-22:15
22, eguaztena: 19:30-22:15

EIBAR, RIALTO

«Casanova»

17, barixakua: 19:30-22:15
18, zapatua: 19:30-22:15
19, domekia: 19:30-22:15
20, astelehena: 19:30-22:15
«Kiriku eta basapiztiak»
18, zapatua: 17:00
19, domekia: 17:00

BARRENeK ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketen erantzukizunik.

«El largo viaje» (Zine Kluba)

Zuzendaria: Miguel Albaladejo.
Antzezleak: Borja Navas, Fernando Tejero, Mariola Ventas.


37 urteko, 70. hamarkadako azken ondarrak. Jendeak mundututa begiratzen dio kaletik ziztu bizian dihoan "seiscientos" txikiari, batez ere, gidaririk ez delako gerri. Izan ere, Juan Carlos "El Pera", 9 urteko nekazaria da gidaria: autoak gidatzeko, eta apurtzeko, aparteko abilezia duen mutil koskorra. Burusoak alferrik saiatuko dira semea kaleetako bizimodu gogorretik ateratzen. Kanean ez dago orain eta mugarik eta Perak kalea aukeratu du.



Zuzendaria: Ismael Ferroukhi.
Antzezleak: Nicolas Cazalé, Mohamed Majd.

Unibertsitatean sartzeko azterketen atarian, aita Mekara eramatera behartuko dute Réda, Frantzia hegaldetan bizi den gaztea. Musulmanek bizitzan behin egin beharreko bidaia zaila izango da hasieratik, Réda eta bere aita oso ezberdinak baitira. Nola eduki dezakete harreman ona bien arteko komunikaziorik ez baldin badago? Frantzia eta Saudi Arabia arteko 4.800 kilometroen artean dauden herrialde ezberdinak (Italia, Serbia, Turkia, Siria, Jordania) igaro ahala elkar ezagutzuz hasiko dira aita-semeak.

Atzera hegira



1965 urteko erretratu zahar hau **Jose Mari Gurrutxagak** laga digu. Argazkian lagun talde bat agertzen da, seguruenik San Bartolome jaietako egunen batean ateratako erretratuan. Dirudienez, Errosario kaleko gune batean daude, garai hartan ohikoa zen bezala, lagun arteko bazkaria egingo zuten, eta bazkal ostean, freskagarri batzuk hartzen zeuden bitartean atera zuten gaur argitaratu dugun argazki hau. Hemen agertzen diren gizon hauek oso ezagunak ziren herrian, batzuk, makina erreminta sektoreko tailerra ere eduki zuten, gainera. Argazkian agertzen diren guztiak hilda daude, bait izan ezik. Gogora ditzagun zeintzuk diren gizon hauek.

Aurrean dauden hirurak ezkerretik eskumara: **Vicente Martinez de Suso (zapatagilea), Felix Izagirre, ezezaguna.**

Atzean ezkerretik eskumara: **Gregorio Gabilondo, Jose Juaristi (urte askotan C.D. Elgoibar taldeko atezaina, Planica deitzen zioten), Teodoro Izagirre, Gerardo Bemedo (98 urtekin, bizirik dagoen bakarra), Migel San Martin, Jose Gurrutxaga eta Luis Gurrutxaga.**

OKERRAK ZUZENTZEN

Joan zen asteko erretratu zaharrean gaizki jarri genuen urtea. 1950. urtekoa izan beharrean, Xabier Gorostizak lagatako argazkia 1956. urtekoa zen.

ZEZEN-BIDE

AUTO ESKOLA



Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!



ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

San Frantzisko, 43 - 1. solairua

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR

Ego Gain, 4 behea

(San Andres pasealekutik)

Tel. 943 203 445 - 20600 EIBAR



autonomoentzako eta mikroenpresetarako
doako **mintegiak**

Biltegien kudeaketa informatizatua eta eraginkorra

Jakin ezazu zer onura ekar ditzaketen Informazioaren Teknologia Berriek Enpresa Txikien kudeaketan

Zein da **egungo biltegien kudeaketaren egoera**? Zeintzuk dira **hobetzeko aukerak**? Zer lor dezakegu **merkatuak eskaintzen dizkigun tresnak** egoki erabiliz gero? Nola lortu **etengabeko inbentarioa** izatea **irteeren eta sarreren erregistro zorrotzarekin**?

Deba Barrena
marxoak 21

ELGOIBAR

Makina Erremintaren
Institutua (IMH)

Ordutegia:
18:00-20:00

Informatzeko eta izena emateko:

943 747 314

www.miramondigital.com

cursos@miramondigital.com

Antolatzailea:



Miramon
Enpresa Digitala

Sustatzaileak:



ELKARO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Gipuzkoako Foru Alderdia
Euzko Legebiltzariaren Foru Erkidea



euskadi
Euzko Legebiltzariaren Foru Erkidea

e-gipuzkoa SPRI

Enpresa Digitala



Gremioen

GIDA



Aroztegiak

Biena

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
☎ 943 74 31 16

Etxekit

Sukaldeak eta bainuak
Antonio Arrillaga, z/g
☎ 943 74 43 47

Garcia

Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 943 74 32 38

Imar

Erreformak
☎ 943 53 14 71
☎ 646 90 55 64
☎ 609 05 49 78

Lodoso

Leihoak
Sigmako industrialdea
Xixilion 2-2. pabiloia 3. zenb.
☎ 943 74 34 90

Soraluze

Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 8
☎ 943 74 36 34

Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47



Iturgintza, berogailua, gasa, eguzki energia eta klimatizazioa

Ongi

Olaso Poligonoa,
15-68 pabiloia
☎ 943 74 28 80

Pagoaga

San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

Pagoerrot

Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 75 60 44
☎ 659 33 43 23

Tellabide

Azpilgoeta, 19 MENDARO
☎ 943 75 50 62
☎ 607 75 50 62

Zaldua

Urasandi, 26
☎ 943 74 05 30

Zubizarreta instalazioak

Ubitarte, 5 behea
☎ 943 74 07 89
☎ 650 58 61 44



Igeltseritza

Antonio Markez
Urasandi, 24
☎ 943 74 34 18

E. Arandia

Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04



Elektrizitatea

Aramar

Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

Azpeleta

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

Urzelai

Santa Ana, 12-14
☎ 943 74 13 76



Pinturak

Biok dekorazioa S.L.

Santa Klara, 26 behea ezk.
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20

Ipintza

Foruen enparantza, 4
☎ 943 74 04 40/607 74 04 40



Isolamenduak

Glas Control S.L.

Olaso 27, 47. pabiloia
☎ 943 74 30 94



Proiektu eta erreformak

Estudios Arrillaga

Errosario, 15 behea (Elgoibar)
☎ 943 744 055/943 744 019
Arragueta, 12 behea (Eibar)
☎ 943 200 698



Indusketa lanak

Lekunberri indusketak

Indusketa eta indusketa txikiak
Lekunberri baserria
☎ 943 74 20 98/629 42 56 32
koldo@movistar.com
www.excavacioneslekunberri.com